

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Gure proiektuak funtziona dezan ezinbestekoa dugu beste elkarteekin eta hornitzaileekin aliantzak egitea.

Aliantza horien artean elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza sortuko dugu, hau da, gure enpresaren negozio ereduarekin lehiakide ez diren enpresekin.

Horien artean, webguneak diseinatu eta sortzen dituzten enpresak daude. Proiektua egiteko, ikastaroen bidez webguneak nola sortzen diren erakusten duen enpresa batekin jarriko gara harremanetan, wixekin. Wix Estatu Batuetako enpresa bat da, eta marka ezagun askori lagundu diete bertako ikastaroak.

Bestalde, erosle eta hornitzaileen arteko harremanak bermatuko ditugu, apunteak partekatuz beraien artean hartu eman sorraraziz. Aliantza mota honen bitartez, gure bezero guztiek plataforma eskuragarri edukiko dute beraien nahiak asetu ahal izateko. Horretarako, Google eta antzeko enpresekin aliantzak egin beharko ditugu gure webgunea zabal dadin.

Esandakoaz gain, beharrezkoa ikusten dugu hirugarren aliantza bat liburu denda edo paper dendekin. Hauek ezinbestekoak dira gure proiektua aurrera eramateko, beraien bitartez gure webgunea plazarutuko dugulako.

Aipatu dugun bezala, ezinbestekoak ditugu aliantzak hiru enpresa mota horiekin. Alde batetik, webgunea sortzeko ahalmena emango digun plataforma batekin, Wix. Beste aldetik, webgunea zabaltzeko, Google eta antzekoekin, eta azkenik, liburu eta paper dendekin gure webgunea ezagutzera eraman ahal izateko.

Aliantzak, batik bat, baliabideak eskuratzen egingo ditugu, haiek gabe gure proiektua aurrera eramatea ezinezkoa izango litzakeelako.